

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko martxoaren 16a. VIII. urtea. 2.193. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Herritarren beharrak asetzeko gunea izango da Atekabeltz

Eraikinean obrak egiten ari dira, eta finantzazioa lortzeko apirilaren 2rako Atekarock Jaialdia antolatu dute ◊4



Atekabeltz eraikina berrantolatzen ari dira. M. UGARTEMENDIA



E. MAIZ

→ **Larrault-Ennio-Larraul lasterketa.** Lehen aldiz antolatu dute igandean izango den proba. Herriko plazan hasi, eta Ennio tontorrera igo ondoren, berri plaza bukatu beharko dute. Herritar talde baten ideia izan zen lasterketa antolatzea. Izena bihar arte internetez eman daiteke. Bestela, egunean bertan ere izango da aukera. ◊6

Proiektuen aurkezpenarekin hasiko da Misio Astea

Ibarratik Misio Taldea gobernuz kanpoko erakundeak antolatzen duen ekimena hiru egunetan izango da: gaur, etzi eta igandean ◊2

Tolosako merkatariak «eraberritzeko» ikastaroak antolatu dituzte

Tolosa & Co merkataritza taldeak eta Gipuzkoako Merkatarien Federazioak sinatutako hitzarmenari esker besteren artean, finantzak egiten eta erakusleioak atontzen ikasteko aukera eskainiko dute ◊2



TXOKOA hitza

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

LAGUN ARO GBC
DKV Juventud
saskibaloia partida

Martxoak 20 • Igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak



Garai berriei egokitzeko ikastaroak burutuko dituzte herriko merkatariek

Gipuzkoako Federazioaren eskaintza zabaletik hainbat ikastaro aukeratu dituzte

Itzea Urkizu

Tolosako merkatariek euren sektorerako egokituriko formazio berezia jasoko dute datozen hilabeteetan, Tolosa & Co merkatariek eta Gipuzkoako Merkatarien Federazioak sinatu berri duten hitzarmena dela eta.

«Lanbide guztiek eraberritze-ko beharra» izaten dute, eta garaiak, bizimodua eta teknologiak aldatuz doazen heinean, merkatariek ere berrikuntzak beharrezkoak dituztela azaldu dute.

Horrela beraz, kalitatearen inguruko ikastaroetatik hasita, kudeaketa, salmenta, erakusleihen atontzea, kontabilitatea, informatika eta finantzak lantzeko ikastaroak ere eskaintzen ditu Gipuzkoako Merkatarien Federazioak.

Tolosako merkatariek Gipuzkoako Federazioarekin sinatu duten lehen hitzarmena da hau, eta



Tolosa & Co-ren egoitzan sinatu zuten hitzarmena. I. URKIZU

«betidanik gogo» izan dutela diote: «ez dakigu guztia, eta gauza berriak ikasi behar dira».

Gipuzkoako Merkatarien Federazioko Eva de Anton eta Fernando Amunarrizek, eta Tolosa & Co-ko Pedro Tosolas azpimarratu dutenez, hitzarmen honek epe luzearako fruituak ematea espero dute, eta Tolosatik kanpoko merkatariekin harremana erraztea espero dute: «hau oso lagungarria izango da, baita bezeroekin gertutasuna mantentzeko ere».

Ikastaroekin hasi baino lehen, merkatarien iritziak bilduko dituzte, eta beharrezkotzat jotzen dituzten ikastaroak burutuko dituzte. Datorren ekainean bertan ikastaroekin hastea aurreikusiko dute arduradunek, eta eskualdeko merkatariei ere dei egin nahi diete bertan parte hartzera.

Beraz, informazio gehiago nahi duen edonork 943 65 35 78 telefonora deitu dezake, edo tolosakomertzio@gmail.com helbidera idatzi ere bai.

Irudia >



35 URTE TXARANGAREKIN

Asteartita egunean San Esteban txarangak bere kiderik beteranone-na omendu zuen: Florencio Perez Perez. 35 urte bete ditu txaranga honetan Inauterietan tuba jotzen, eta berez Alcoyano txarangako kidea den arren, San Estebanera laguntzaile gisa joaten hasi zen. Florencio Perez Valencia de Don Juan-en jaio zen, Leon-en. Han ikasi zuen musika, eta 1955ean Tolosara etorri zen bizitzera. 1961ean Tolosako Musika Bandan sartu zen, eta orduz gero txaranga askotan parte hartu izan du. HITZA

Zabalik da Aldundiaren udalekuetarako izen-emate epea

7-13 urte bitartekoek hilaren 23ra bitarte izango dute izena emateko aukera, kultur etxean edo Interneten

I. Urkizu

Gipuzkoako Foru Aldundiak udalekuak antolatatu ditu aurtengo udarako ere, eta zozketak apirilaren burutuko dituzte.

7-13 urte bitartekoentzat dauden plazak apirilaren 5ean zozketatuko dituzte jendaurrean eta notario batekin, eta zozketarako

izen-emate egunak martxoaren 14tik 23ra bitartekoak izango dira, kultur etxean nahiz Internet bidez (www.gipuzkoa.net/operaldia). Eskaera taldeka nahiz banaka egin daiteke, gehienez ere hiru neska-mutileko taldeak osatuz.

Zozketaren emaitzak aipaturiko bulegoan eta interneten jarriko dituzte, eta behin betiko izen-ematea apirilaren 7tik 15era bitartean burutu beharko da.

14-17 urte bitartekoentzat diren udalekuei dagokienez, berriz, zozketan parte hartzeko izen-emate epea apirilaren 6an zabalduko dute.

Apirilaren 16an hasiko da aurtengo TolosaKup txapelketa

I. Urkizu

Aurtun, Tolosakup-en ez da aldaketa handirik izango, eta pasa den martxoaren 10ean egindako bilan erabaki zuten moduan, apirilaren 1erako izen-emate orria diru-sarreraren agiriarekin batera eman beharko du talde bakoitzak kultur etxera. Zozketa apirilaren 12an izango da, eta txapelketa as-teburu horretan hasiko da.

→ Laburrak

TAK Erek Baskonia ikustera martxoaren 24an

TOLOSA > Hilaren 24an Caja Laboral Baskoniak Maccabi talde israeldarren aurka jokatuko du partida Gasteizko Buesa Arenan. TAKEk irteera antolatuko du hara joateko. 30 euroko prezioa izango du, eta sarreraz gain, prezioaren barruan autobuseko bidaiaren kostua ere sartzen da. Joateko interesa duten edonork takesb@takesb.com helbidera idatzi beharko du, edo 616 49 93 94 telefonora deitu.

Alpino Uzturre elkartearen irteera martxoaren 20rako

TOLOSA > Alpino Uzturre elkarteak hilaren 20rako mendi irteera antolatuko du. Txangoa Olaztin (Nafarroa) hasiko da, eta Eulaten (Nafarroa) amaituko da. Ibilaldiak zazpi ordu iraungo ditu, eta 27km izango ditu, bi tontorrekin: Bargagain (1.154m) eta Larreigoiko (1.014m). Autobusa San Frantziskotik irteerako da 07:30ean. Elkarteko bazkideek 11 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 13 euro. Interesa dutenek 943 65 27 89 telefonora dei dezakete, eta baita alpinouzturre@hotmail.com helbidera idatzi ere.

¿Qué fue de Baby Jane? filma bihar, Leidorren

TOLOSA > Ospearen esanahiari eta garaien zein porrotara begiratzen dion filmea izango da bihar ikusgai. *Show business*aren mundu lehiakorra eta krudela islatuko dira pantailan, eta umore beltza baliatuko du horretarako Robert Aldrich zuzendariak. 19:15ean eta 21:45ean izango da pelikula Leidorren, bihar.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Larrea auzoan etxebizitza berria alokatzen da. Sukaldea, jangela, egongela, gela bat, bainugela bat eta trastelekua. 600 euro hilero. Gargaje itxiarekin nahi izanez gero 650 euro. 669 82 70 96.

GARBIKETA

■ **Auxe Garbitasunak.** Alfontzak, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaudela. Interesa dutenek dei dezatela inongo konpromisorik gabe 638 94 96 04 telefonora (Gurutze).

MENDI-ALDE
Eguneko meniak eta karta
Bataioak, Jaumartzeak... **Jatetxea**
San Esteban auzoa. 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



Markel Olano Tolosaldeko erakunde eta enpresetako ordezkariekin bildu zen herenegun. HITZA

Tolosaldeko lehiakortasuna hobetu ahal izateko bilera egin dute Apatta-Errekan

Gipuzkoako ahal-dun nagusia eskualdeko erakunde eta enpresetako ordezkariekin egon da

Rebeka Calvo Tolosa

Markel Olano Gipuzkoako ahal-dun nagusia Apatta-Erreka industrialdean izan zen herenegun, Tolosaldeko 30 bat enpresa eta erakundetako ordezkariekin bilduz. Bilerak Gureak-en egoitzan egin zuten, eta bertan lurraldearen lehiakortasuna hobetzearen beharraz hitz egin zuten. Horretarako beharrezkoak diren mekanismoak eta lan formulak izan zituzten hizpide. Ia bi orduko bilera egin zuten.

Besteren artean, Olanok esan zuen foru erakundearen lehentasuna sail ekonomiko sendo bat sortzea izan dela. «Ekonomia ho-

betzeko eta enpresei laguntzeko Foru Aldundiak bideratuko dituen politika guztiak gidatuko eta koordinatuko dituen sail ekonomikoa. Lehiakortasuna hobetzeko, lurralde osoa nazioarteratu behar da enpresaren eta gizartearen ikuspuntutik», argitu zuen.

Era berean, etorkizunari begira, Olanok «lurralde oreka handiagoa» behar dela esan zuen. Landagipuzkoa programa zabalteak Tolosaldeari mesede handia egingo diola ere argitu zuen. «Herri txikietan oinarritzko zerbitzuak bermatzeko eta biztanleak eskualde honetan lehiatzeak, Tolosaldeko lehiakortasuna hobetzen laguntzen du, eta beraz, lurralde osokoa», gaineratu zuen.

Lehiakortasuna sustatzeko, etorkizunean, unibertsitatea, teknologia zentroak, eta enpresak elkartzearen beharraz ere hitz egin zuen. Olanoren ustez, «enplegu gehiago eta kalitate hobekoa» sortu ahal izateko «ekonomia susta-

tzeko eta enpresei laguntzeko sail berria» sortu behar da. Bigarren erroka moduan, Gipuzkoako gizarte babeserako sistemaren finantzaketa bermatu behar dela esan zuen. «Hitzarmen bat lortu behar da erakunde guztien artean, foru aldundiek gizarte politikaren arloan dituzten eskumenak garatzeko baliabideak birbanatzeko», proposatu zuen.

Gipuzkoan ikus-entzunezko kluster bat sortzea, mugikortasunezko sistema bakar bat ezartzea, Ekogipuzkoa fundazioa eratzea eta aipatu lurralde oreka lortzea ere, funtsezko errokkak direla argitu zuen ahal-dun nagusiak.

Azkenik, lurraldeko «gobernantza eredu» aldatu behar da Olanoren ustez, «gizartearen internazionalizazioa, pertsonen eta erakundearen balioetan gizarte berrikuntzari heltzea, eta herritarrek administrazioan parte hartzeko sistema egonkor bat sendotzeko».

3x3 txapelketa, Denak tabernaren urteurrena dela eta

10. urteurrenaren harira antolatutako ekitaldian izena emateko epea martxoaren 22an amaituko da

R.C. Tolosa

Denak tabernak 10 urte bete ditu jada, eta data ospatzeko antolatutako ekitaldietako batek kirolarekin du zerikusia, izan ere, 3x3 futbol txapelketa antolatu dute Denak Taberna, Denak Gazte Taberna eta Denak-Kopibat areto futboleko taldeek. Lehia hilaren 27an hasiko da, eta hurrengo hiru igandeetan izango du jarraipena: apirilak 3, 10 eta 17. Partidak 10:00etan hasiko dira eta 18:00etan bukatu.

Tolosako bi guneetan ariko dira parte-hartzaileak, Izaskun auzoan eta Lizardi Poeta plaza, bertan dauden furbol mota hau jokatzeko egokitutako zelaietan.

Parte hartzeko baldintza bakarra da hiru eta bost pertsona arteko talde bat osatzea, eta «izena eman ondoren futboleko aritu eta ondo pasatzeko gogoia izatea».

Talde bakoitzak 30 euro ordaindu behar ditu, eta izena hilaren 22a baino lehen eman behar da

Denak tabernan. Zozketa hilaren 23an egingo dute, 20:00etan.

Herri txapelketa izango da eta sariak ere egongo dira: garaikurrerakin batera, bost pertsonentzako afariak izango dira Casa Julian erretegiaren, Izaskun jatetxearen, Zuloaga Txiki jatetxearen, Fronton tabernan, Eguzkitza sagardotegiaren, Eluska jatetxearen Isastegi sagardotegiaren, eta Fronton jatetxearen.

Era berean, jokalaririk onenak eta pitxitxiak ere afaria irabaziko dute Denak tabernan.

Araukak

Hauek dira txapelketan jarraitu beharreneko arauak: talde bakoitzetik hiru jokalaririk egon daitezke zelaietan (nahiz eta bostek eman izena); ezin da baloia eskuarekin ukitu; alboko sakeak hankarekin ateratu behar dira; zelaiko edozein tokitatik sartu ahal izango da gola, hamar minutuko bi zati jokatuko dituzte; partida amaieran emaitza berdinketa bada, 5 minutuko beste zati bat jokatuko dute; eta gol aukera argi bat eskuarekin moztzen edo sarrera gogor bat egiten duen jokalaririk oro bi minutuz kanporatuko dute.

Partidak dauden igandeetan Denak taberna irekiko dute 09:00etatik aurrera.



Martxoaren 27an hasiko da 3x3 futbol txapelketa. E. MAIZ

Eskualdeko pilotariak, partida guztietan garaile GRAVn

Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia eta Nafarroa elkarren artean lehiatzen dira txapelketan

Erredakzioa

GRAVN izeneko txapelketa Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako federazioetako pilotaririk onenak jokatzen dute. Pilotariak gazteen, 22 urte azpikoaren eta nagusien mailatan banatzen


dituzte. Eskualdeko hainbat pilotaririk parte hartzen dute txapelketa horretan, eta asteburuan arabarren aurka jokatutako norgehiagokan partida guztiak irabazi zituzten.

Nagusien mailan, Zazpi Iturriko Garmendia legorretarrak atzelari bezala jokatzen du. Mendizabal bikotearrekin batera 5-22 irabazizieten arabarrei.

22 urte azpikoaren mailan, Aurrea Saiaz elkarteko Apezetxea goizuetarrak eta Zubiri berastegiarak 16-22 irabazi zuten. Maila horretan, banaka, Zazpi Iturriko

Arzelus donostiarrek 20-22 irabazi zuten. Gazte mailan, binaka, Zazpi Iturriko Jaka lizartzarrak Rezustarekin batera 7-22 irabazi zuten. Banaka, Intxurre elkarteko Artola alegiarrek 0-22 irabazi zuten.

Gipuzkoako federazioak Nafarroako federazioaren aurka du asteburu honetan norgehiagoka. Gazte mailakoek Seguran jokatuko dute larunbat arratsaldean. Egun berean, baina goizez, Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatuko dituzte euren partidak nagusien eta 22 urte azpikoaren mailako pilotariek.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Atekabeltz elkarteak 2009an sortu zen arren, udalak aurten eman dio eraikinaren kudeaketa. Elkartearen helburua, «herritarren beharrak asetzeko herri gunee bat» sortzea izan da.

Atekabeltz izanen da leitzarren herrigunea

Maier Ugartemendia Leizta

A tekabeltz kanpotik guztiz berritu dutela ikus daiteke, eta barruan lanean ari direla ere antzeman daiteke. Izan ere, Atekabeltz izanen da Leitzako herrigune berria. Hau kudeatzeko, herriko hainbat eragilek Atekabeltz elkarteak sortu dute. Elkartea herriko bost talde osatzen dute, oraingoz: Bilgune Feministak, Txalaparta taldeak, Gazte Asanbladak, Kultur Taldeak eta pinturazaleak.

Orain dela urte batzuk, Guardia Zibilak etxea utzi zuenetik, hainbat gazte eta eragile lanketa bat egiten hasi ziren. Bilerak batzuen ondoren, ikusi zuten elkarre bat sortzeko beharra zegoela. Han elkartzen ziren taldeen artean koordinazio bat behar baitzen. Elkartea, beraz, 2009ko ekainean sortu zuten; eta bertan izan zen Arkaitz Lasarte, gaur egun Atekabeltz elkartearen batzordeko kide dena. Elkartea «herriko beharrak asetzeko» sortu zen. Gaur egun, Atekabeltz herrigune izatea espero dute. Modu berean «euskarakultura eta kultura aniztasu-

na» bultzatu nahi dituztelarik. Herrigunearen funtzionamenduan harreman hizkuntza euskaraz izango da. «Ideietan zabala den eta auzolana bere dinamikaren oinarri izango duen» proiektua osatu nahi dute. Elkarlanean aritzeko gune bat izango da.

Herrian dauden hainbat taldeek ez dute azpiegiturarik, eta Atekabeltzen helburuetako bat «hutsune hori betetzea» da. «Herri dinamika eta auzolana» ere sustatu nahi ditzute. Haur eta nerabeei bat eskaintzea, eta gazteei espazio propio eta autogestionatu bat ematea ere helburu dituzte. Herritarrei «eskaintza aberats» bat eskainiz.

Erabiltzaileei dagokienez, gune irekia izanen da «herritik eta herriarentzat» lan egiten duten talde eta eragile guztientzat. «Ideia, arraza eta kolektibo guztientzat» irekia egonen da. Salbuespen batekin «Leitzako herria eta leitzarren eskubideak zapaltzera etorri direnek ez dute lekuerik, ez eta sarterik izanen». Alderdi politikoez ez dute espazio propiorik izanen, baina, bertako azpiegitura erabili ahal izanen dute «ekitaldiak, hitzaldiak, batzarrak eta abar egiteko». Jabetzaren inguruan, juridikoki Lei-

tzako Udalarena da. Udalak lehia-ketara ateratu zuten eraikinaren kudeaketa, eta Atekabeltz elkarteak izan zen aurkeztu zen talde bakarra. Gauzak honela, osoko bilkuratik pasa ondoren, Atekabeltz herriko etxea Atekabeltz elkarte-ari adjudikatu zion.

Elkartearen kudeaketa batzorde batek eramanen du. Batzordea momentuan Atekabeltzen dabil-tzan eragile bakoitzeko partaide batek osatzen du. Helburua «ko-ordizantzia bermatzea» da. Bakoitzak bere taldean azalduko dituztelarik batzordean erabakitzen diren gauzak. Batzordearen funtzioaren barnean honako eginbehar hauek sartzen dira: erabiltzeko arauak zehaztea, eta hauen jarraipena egitea; jarduera plana osatzea eta koordinatzea; etxearen azpiegitura eta mantenimendua beharrak asetzea; herri-guneko espazioa eta bertan egiten diren ekitaldiak koordinatzea eta dinamizatzea; errotulazioa eta hizkuntza paisaia euskaraz izanen dela bermatzea.

Herritarrentzat zabalik

Talde berri batek elkartearen sartu nahiko balu, aukera hori irekia egongo litzateke. Gainera, hementik denbora batera, Ateka-



Atekabeltz kanpotik guztiz berritu dute. MAIER UGARTEMENDIA

beltz festa egiteko asmoa ere badute. Ateak zabalduko dituzte eta herriko eragile guztiei parte hartzeko aukera emanen diete. Obra egiteko ere larunbatero auzolanean elkartzen dira, eta hau ere zabalik dago parte hartu nahi duen herritar ororentzat.

Urte hasieran, laguntzaileak bildu zituzten. Proiektuan parte hartu nahi dutenek Atekabeltz elkartearen laguntzaile izan daitezke. Udaletxeari egin zitzaion eskaeran «babesa izateko». Laguntzaileek urtean 12 euroko kuota

ordainduko luke, «modu sinboliko batean». Ordainez, laguntzaileek Atekabeltzen eginen diren ekitaldi guztien berri izanen dute.

Epe motzera dituzten helburuen barruan sartzen da, Atekarock egitea eta gaztetxea prestatzea. Hori eginda, hurrengo helburuak «gelak egokitzea eta prestatzea» izanen litzateke. Eta, Atekabeltz eguna ospatzea herritarrei eta bertako eragileei «etxea aurkezteko». Hortik aurrera eragile bakoitzak eginen du bere plangintza.

Atekarock apirilaren 2an izanen da, eta herri guneko obrak egiteko finantzazioa lortzea du helburu; bertan izanen dira Euskal Herriko hainbat talde ezagun.

Musikarekin eraikiko dute

M.U. Leizta

A tekabeltz elkarteak Atekarock jaialdia antolatuko du, apirilaren 2rako eta bertan izango dira Berri Txarrak, Su Ta Gar, Gose, Kop eta Vendetta taldeak. Horrez gain, gaztetxean Bad Sound System taldearen kontzertua ere izango da.

Etxea kanpotik udaletxeak konpondu duen arren, barrutik konpontzea elkartearen esku dago. Ander Perurrenak, Atekarocken dinamizatzaileak, dioen bezala, helburua «barrengo obra egiteko dirua lortzea» da.

Elkarlanetik jaio, muiskatik eraiki! da leloa. «Herriki sortu den proiektua» baita, eta eraikitzeo musika erabiliko baitute. 2010. urtea amaitu aurretik hasi ziren jaialdia antolatzen. Sarre-rak salgai daude Euskal Herriko



Atekarock jaialdiaren kartela. HITZA

puntu askotan. Leitzan Torrea Herrikoan eta Tolosan Denak tabernan eskuratu daitezke. Diru transferentzia bidez ere erosi daitezke. Kiroldegian izanen da, eta inguruan pare bat txosna jarriko dira edari eta ogitarteokoen. Barruan ere egonen da beste barra

handi bat. 18:30ean protesta egiteko kalejira bat eginen da. Kontzertuak 20:30ean hasiko dira, proiektua azaltzeko ekitaldi baten ondoren; eta 07:00ak arte zabalik egonen da kiroldegia. Gaztetxeo kontzertua 02:00etan hasiko da, eta hau ere zabalik egonen da gau guztian zehar.

Bi autobus linea ere egonen dira Leitzara joateko eta handik itzultzeko. Bata Tolosaldeko abiatuko da eta bestea Iruñeatik. Tolosaldeko autobusa 20:00etan abiatuko da Tolosaldeko, eta Villabona eta Andoaindik pasako da Leitzara joan aurretik. Itzulerako autobusa 07:00etan abiatuko da Leitzatik.

Informazio gehiago eskuratzeko atekarock.blogspot.com web orrira jo daiteke. Bertan baitago jaialdiari buruzko informazio guztia.

Hartu aisia BERRIarekin

Egin harpidedun eta jaso 2 lagunentzako ERLAXATZEKO BONUA OPARI

EZAUGARRIAK:

- Talasoterapia zirkuitua
- Erlaxatzeko masajea
- Igande arratsaldetik ostiral eguerdira erabil daiteke

Harremanetarako:

943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Saralegi, txapelaren bila Adania Aizkolari Sariaren finalean

Leitzan izango da finala igandean, eta ondoan izango ditu Mugertza II.a, Mugertza III.a, eta Oihan Larretxea

I. Garcia Leitza

Aizkolari gazteak martxan egoteko asmoz, Gabriel eta Mieltxo Saralegi Adania Aizkolari Saria antolatuko dute. Leitzan izango da finala igandean, eta proba nagusian Ruben Saralegi leitzarrak parte hartuko du, txapela janzteko asmoarekin.

23 urtez azpiko lau aizkolari lehiatuko dira finalean. Saralegiz gain, Mugertza II.a, Mugertza III.a, eta Oihan Larretxea ariko dira. Bi finalerdietan guztira zortzi aizkolari hartu dute parte. Lehenengo finalerdia Lekunberri jokatu zen. Bertan, Saralegi Jokin Alkizalete asteasuarra kanporatu zuen. Mugertza III.ak, berriz, Arkaitz Olano leitzarra utzi zuen kanpoan. Beste finalerdia Donezteben izan zen. Mugertza II.ak Kañamari irabazi zion, eta Larretxeak Erasun kanporatu zuen.

Adania Sariaren finalean, beraz, egun puntan dabilen lau aizkolari elkarren artean lehiatuko dira. Bost lan egin beharko dituzte, eta bakoitzean lortutako denbora batzen joango dira. Lehenengo saioan 45 ontzakoa etzanda moztu beharko dute. Bigarren saioan, kanaerdikoa, etzanda hau ere. Hirugarren saioan, 45 ontzakoa zutik ebaki beharko dute. Laugarren saioan, metrokoa zutik eta 45 ontzakoa etzanda. Azken saioan, 45 ontzako bi enbor eta kanaerdiko beste bi etzanda, eta 45 ontzakoa zutik moztu beharko dituzte.

Jaialdia 12:00etan hasiko da,



Ruben Saralegi leitzarra. HITZA

Amazabal pilotalekuan. Sarrera 10 eurokoa izango da. 18 urte azpikoak doan sartu ahalko dira.

Aizkolari gazteak

23 urte azpiko txapela ez da jokoan izango den bakarra. Aizkolari gazteagoek ere izango dute beren lehia. 18 urte azpikoekin mailan bi aizkolari ariko dira: Eloi Kortxero eta Unai Otaño. Bi saio egingo dituzte, nagusien lanen artean tartekatuko direnak.

Beste lehia 14 urte azpikoekin artean izango da. Bertan ariko dira Mikel Zabaleta leitzarra, Julen Larrea bizkaitarra, eta Iker Vicente nafarra.

Korrikaren inguruko herri batzordea osatzeko bilera antolatu dute

Erredakzioa Ibarra

Maitatu, ikasi, ari... euskalakarri lelopean, Korrika 17 apirilaren 7tik 17ra egingo da. Trebiñun abiatuko da eta Donostian amaitu, eta Ibaratik apirilaren 13an, asteazkena, pasako da. Dagoen informazioaren berri emateko

eta antolaketaren inguruan herriari batzordea osatzeko, bilera izango da Euskara taldeak antolatuta.

Bilera Ibarako kultur etxean egingo da bihar, osteguna, 20:00etan. Antolatzaileek herriartar guztiei gombidatzen die bilera parte hartzera.

Anoetako eta Irurako festak iragartzeko kartelen lehiaketak abian daude

Anoetaren kasuan maiatzaren 9rako aurkeztu behar dira lanak; Iruran, berriz, maiatzaren 6rako

I. Garcia

Anoetako eta Irurako festa batzordeek herri bakoitzeko festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatuko dute. Anoetan lanak aurkezteko epea maiatzaren 9an amaituko da. Iruran, berriz, kartelak aurkezteko azken eguna maiatzaren 6a izango da. Bai lehiaketa batean zein bestean udaletxean aurkeztu behar dira lehiaketarako egindako lanak.

Anoetaren kasuan, bertako Herri Ikastolako ikasleek edo Anoetan errodututako pertsonak har dezakete parte. Kartelak karriatua izan behar du, eta gehienez neurri hauetakoa: 29,7 x 29,7 zentimetro. Teknika librea da, hau da, eskuz egindako marrazkiak, akuarelaz egindakoak, izan daitezke. Formatu digitalean ere aurkez daitezke. Azken kasu honetan gutxienez 300 ppi-ko erresoluzioa izan beharko dute, eta jpg formatuan aurkeztu behar dira.

Kartelaren ondorengo testua agertu behar da: «Anoetako Jaiak 2011». Lanak koloretan aurkeztu behar dira, originalak, eta beste



2010eko Anoetako festen kartel lehiaketako irabazlea. HITZA

inon ez aurkeztutakoak izan behar dira. Pertsona bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Lanarekin batera, eta kartazal itxi baten barnean egilearen datuak sartuko dira, hau da, izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta adina. Kartazalaren kanpoan eta kartelaren atzeko aldean, berriz, egilearen goitizena. Bi sari egongo dira: Ikastolakoak direnentzat, Kuku-Loren erosteko 40 euroko bonu bat jasoko du irabazleak; Ikastolaz kanpokoentzat, 120 euroko saria jasoko du irabazten duen kartelaren egileak.

Iruran, 300 euroko saria

Irurako lehiaketan 15 urtetik gorako edonork parte har dezake. Inprimatutako edozein kolore eta eratako lanak onartuko dira: photoshop, freehand, collagea, pintura, eta abar. Lanen neurriak 42 x



2010eko Irurako festen kartel lehiaketako irabazlea. HITZA

60 edo horren proportzioko tamaina izan behar dute. Lehiaketarako gaia Irurako jaiak izango da, eta lanetan «Irurako San Mielak 2011» azaldu beharko du idatzita.

Epaimahaiak sari bakarra banatuko du: 300 eurokoa. Saria eman gabe gera daiteke epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek gutxienezko kalitate ez badute. Kartelak inoiz argitaratu gabeak izan behar dira. Lanetan ezingo da egilearen daturik adierazi. Horrela, lanekin batera, kartazal itxi batean, parte-hartzailearen datu pertsonalak eta nortasun agiriaren fotokopia bidali behar dira.

Epaimahaiak maiatzaren 13a baino lehen emango du bere erabakia eta horren aurka ezingo da errekurtsorik jarri.

Eskuratu autoa mantentzeko zerbitzua 30 euro merkeago

Jaso **martxoaren 18an** BERRIarekin etorriko den **kartilla**, eta bete hurrengo egunetan argitaratuko ditugun kupoiekin

BERRIaren irakurle guztientzako eskaintza.

Harpidedun bazara, eskuratu **martxoaren 17an** BERRIarekin banatuko dugun katalogoan.

aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria** info



MIDAS BILBO
Sabino Arana etorbidea, 19
Tel.: 94-439 31 21

MIDAS DONOSTIA
Galtzara Nagusia, 30 - Gros
Tel.: 943-27 51 91

MIDAS IRUÑEA
Nafarroa etorbidea - Sanduzelai
Tel.: 948-19 95 01
Zaragozako etorbidea, 49
Tel.: 948-24 56 98

Igandean izango da lehenengo Larraul-Ernio-Larraul lasterketa

Larraulgo lagun talde baten ideia izan da lasterketa antolatzearena; udalaren laguntzarekin batera egin dute

Ibilbideak 15,5 kilometro izango ditu eta izena emateko aukera zabalik dago

Eneritz Maiz Larraul

Igandean Larraul-Ernio-Larraul lasterketa egingo da. 10:30ean emango zaio hasiera Larraulgo plazan, eta Ernio tontorrera igo ondoren, Larraulgo plazan bukatuko dute parte hartzaileek.

Internet bidez, www.erniozaleak.com helbidean izena emateko epea zabalik dago. Horretarako azken eguna hilaren 17a izango da. Eta egunean bertan eman nahi duenak ere lasterketa hasi aurretik, aukera izango du. Dagoeneko 100 bat lagunek eman dute izena.

15,5 kilometro egin beharko dituzte parte hartzaileek, eta gutxi gorabehera, 840 bat metrotako desnibelari aurre egin beharko diote. Ibilbidean zehar, hiru kontrol gunetatik pasa beharko dute eta garrantzitsuen, Ernio tontorrean emango dieten eskumuturrekoa izango da. Eskumuturreko hau, lasterkaria tontorreraino iritsi denaren seinale izango da. Joan-etorria ibilbide ezberdinetik egingo dute, baina zati batean leku beretik pasako dira.

Lagun talde baten ideia aurrera eramateko erabakia hartu zuten, eta uda pasa ostean hasi ziren guztia antolatzen. Ibilbidea, kostua eta lana zehaztu ostean, Larraulgo Udalari aurkeztu zioten eta baita honen laguntza eskatu ere. Xabier Mujika alkatearen ustez, «ideia interesgarria iruditu zitzaigun» eta onartzeaz gain, antolatzaile lanetan ere badabil.

Zatirik handiena Larraulgo lurretatik egingo dute, eta polita iruditu zitzaizen ibilbidearen erdia Ernio izatea. Segurtasuna ere kontuan izan dute ibilbidea prestatzerakoan. Bost lagun inguru ibili dira antolatzen eta egunean bertan, 40-50 lagun ariko dira. Inguruko lagun batzuk ere izango dituztela azpimarratu du Mujikak, baina herriak ere erantzun ona eman duela adierazi du. Lanak banatuta dituzte.

Gastua ahalik eta txikiena izaten saiatu dira eta horretarako, sariak, masajeak, hamaiketakoak, zozketarako materiala, ... lortu dituzte. Lehen lasterketak aipamen berezia ere izango du, Koldo Iratzurena hain zuzen ere.



Xabier Mujika alkatea antolatzaile taldeko kideetako bat da; hasi eta bukatu herriko plazan egingo da. E. MAIZ

↓ Larraul-Ernio-Larraul lasterketa

HILAK 20, IGANDEA

- **Irteera ordua.** 10:30ean herriko plazan.
- **Luzera.** 15,5 kilometro.
- **Desnibela.** 840 metro gutxi gorabehera.
- **Ibilbidea.** Larraul herritik atera eta Lizarzelai eta Irumugarrietatik pasa ostean, Ernio tontorrera. Bertan eskumuturrekoa har-

- tu eta Larraulera jaitsiko dira bide ezberdinetik.
- **Izena ematea.** www.erniozaleak.com helbidean hilaren 17a bitarte, edota egunean bertan.
- **Kostua.** Aldez aurretik eginez gero, 8 euro eta egunean bertan, 15 euro.
- **Sariak.** Helmugara iristen diren lehen hiru gizon eta emakurra. Bertan eskumuturrekoa har-

- negoentzat, 110 euro, bigarrentzat 80 euro eta hirugarrentzat, 60 euro izango dira.
- **Doan.** Lasterketa bukatzen dutenek, masajeak doan hartzeko aukera izango dute.
- **Zozketak.** Lasterketa bukatzean, hamaiketakoaz gain, parte hartzaileen artean material ezberdineko loteak zozketatuko dituzte.

Irudia > Zizurkil



LESMESENTZAT TXAPELA

Larunbatean Zizurkilgo XVIII. Txapela Eguna ospatu zuten. 2011. urteko txapelduna, Iruña baserriko Lesmes Mujika izan zen. Txapela iazko txapeldunaren eskutik jaso zuen, Bernarda Usabiagaren gainetik hain zuzen ere. Jende mordoak bildu zen Zentroan afaltzen eta, ondoren, gau «alai eta luzea» pasa zutela azaldu dute. HITZA

Udalak euskaraz egindako web orriak diruz lagunduko ditu

Apirilaren 29a bitarte diru laguntza eskaerak egiteko epea zabalik egongo da; webguneak egina egon beharko du

E. Maiz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak euskarazko web orriak diruz laguntzeko egitasmo berri bat jarri du martxan. Udaleko Euskara Zerbitzua, diru laguntza deialdia egin du webguneak euskaraz egin edota egingo dituzten herriko elkarte, era guztietako saltoki, erakunde edo enpresa ezberdinei zuzenduta.

Diru laguntza hauen bitartez, hain garrantzitsua den esparru

horietan ere, udalak, euskararen erabilera sustatu nahi du. Diruz eduki osoa euskaraz duten webguneak lagunduko dira, baina horiek ez du eragotziko web orriko edukia beste hizkuntza batzuetan ere izatea.

Amasa-Villabonakoa izatea

Deialdiaren baldintzen arabera, ez dira lagunduko webgune pertsonalak, ez eduki iraingarriak dituztenak, ez eta, edukietara iristeko edonolako mugak jartzen dituztenak ere; era berean, ez dira deialdi honetan sartuko edozein herri erakunderi lotutako enpresa, talde, elkarte eta abarretako guneak.

Aurtengo edizioan, diru laguntza honen eskaera egiteko epea, astelehenean, hilaren 14ean, ireki

zen, eta apirilaren 29an, ostiralean bukatuko da.

Nolanahi ere, eskaera egiteko unean webguneak egina egon beharko du, honela, udalak web orria aztertzeke aukera izango du.

Diru laguntza hauek jaso ahal izateko beharrezkoa izango da eskatzaileak egoitza fiskala edota soziala, Amasa-Villabonan izatea.

Dena den, deialdi honetako baldintzak zehatzago ezagutu nahi dituenak Amasa-Villabonako Euskara Zerbitzura jo dezake. Alde batetik, 943 69 35 01 telefono zenbakira deituz edo bestetik, euskara@villabona.net helbidera idatziz. Bertan emango dira diru laguntza honi lotutako argibide gehiago.

Arzallus eta Uranga izango dira Info 7ren aldeko bertso afarian

Afaria Zazpi Bide elkartearen izango da, 20:30etik aurrera; txartelak salgai daude Arkaitz Azpi tabernan

M.U. Leaburu-Txarama

Bertso afaria izango da ostiral honetan, 20:30ean, Leaburuko Zazpi Bide elkartearen. Herriko Larte Azpi kultur ekintza elkartearen antolatuta du afaria. Eta, Info 7 irratiaren

aldekoa izango da. Bertan izango dira bi bertsolari ezagun, Jokin Uranga azpeitiarra eta Amets Arzallus hendaiarra. Txartelak herritarrentzat salgai izan dira hainbat egunetan Zazpi Bide elkartearen sarreraren. Orain, bertso afarira joan nahi duten guztiek eskuratu ahal izango dituzte Ibarrako Arkaitz Azpi tabernan. Txartelak 25 euro balio dute. Afariko menua entsalada, arku-mea, gazta eta irasagarra, eta kafea izango da. Bertsoaz gozatzeko aukera paregabea honakoa.

Lapurdikoa mendirik altuenera igoko dira Haitzetan Rajukoak

Bai Euskal Herriari taldeak hitzaldi bat antolatu du gaurko, bere sorrera eta helburuen inguruan hitz egiteko

M.U. Ibarra

Ibarrako Bai Euskal Herriari taldeak hitzaldia antolatu du, gaurko, Ibarrako plangintza aurkezteko. Hitzaldia 19:00etan izango da, kultur etxean.

Hizlaria, Bai Euskal Herriariko arduraduna den, Mikel Luloaga izango da. Bertan taldearen sorrerari, lan ildoari, helburuei eta abarrei buruz hitz egingo du.

Irteera Lapurdira

Haitzetan Raju Mendi Taldeak irteera bat antolatu du asteburu honetarako. Lapurdiko bailarak ezagutuko dituzte igande honetan. Bertako mendirik altuenera igoko dira. Artzamendira (931 metro), zehazki. 4 ordu inguruko ibilalditxoa egingo dute bertan.

Irteera hau Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari taldeek aurtentz antolatu duten bosgarrena izango da. Jada Gipuzkoa eta Behe Nafarroa ezagutzea bakarrik falta zaie. Horrez gain, apirilaren 10ean Ibarratik Gazteñura martxa egin ondoren, zikiro jan mundiala egingo dute. Behe Nafarroan rafting-a eginga amaituko dute irteeren zikloa.

Martxan dituzten proiektuak azalduz emango diete hasiera Misio Asteari

Ibarratik Misio Taldeak urtean zehar egiten duen sentsibilizazio kanpainaren baitan egiten da ekimena

Maier Ugartemendia. Ibarra

Ibarratik Misio Taldeak Misio Astea antolatu du aurtentz. Gaurtik igandera bitarte hitzaldia, afaria eta eukaristia izango dituzte larrik.

Taldeak hainbat proiektu ditu martxan: Indian, Ekuadorren eta Hondurasetan. Proiektu hauek gauzatu ahal izateko Ibarraren laguntza «paregabea» izaten ari dela diote Misio Taldekoek. Horren adibide, garapen proiektuetarako udalak ematen duen laguntza. Gainera, Gabon egunean eta Santa Ageda bezperan parrokiako kuruak kalez kaleko kantaldietan lortzen duen diruak ere proiektuak aurrera ateratzeko laguntzen diete. Ibarrako merkantuan eta Merkatu Txikian ere eskuratzeko dute babesa emateko beharrezkoa den laguntza. Aurtentz Orona kooperatibak ere egin diete ekarpena. Guzti honez gain, Laskorain Ikastolatik jasotako laguntza; jendeak eskura emandako eskupekoak; ikasketa bekak aurrera eramateko 150 familiaren konpromisoa; hainbat enpresen dohaineko kolaborazioa; eta beste hamaika lani esker lortzen dute beraien proiektuek urtez urte aurrera egitea. Proiektu asko gauzatu dituztelarik.



Misio Taldeak India, Ekuador eta Hondurasetan dituzte proiektuak. HITZA

Aurtentz hiru ekitaldi egingo dira Misio Astean. Gaur, parrokiako lokaletan, urte hauetan «aurrera eramaten ari diren proiektuen berri» emango dute. Aukera «ona» izango da egiten ari diren lanaren berri izan eta sortu daitezkeen zalantzak argitzea.

Etzi, 20:00etan afari solidarioa egingo dute. 10 euro kostako da afaria, eta parrokiako lokaletan izango da. Afari honetan parte hartzeko betiko lekuetan eman beharko da izena, hau da: plazako Mertzxe dendan, eta Euskal Herria kaleko Lourdes eta Igaro dendetan. Hilaren 20an, igandean, 10:30ean San Bartolome elizan misio giroko eukaristia izango da.

Misio Taldeak parte hartu nahi duten guztiak «ongi etorriak» izango direla dio. Eta, gogoraz nahi du «solidaritateker gabe» ezin dela «justiziako mundu berri

bat amestuta eta egia bihurtu». Herriartean sentsibilizazioa sortzeko urtean zehar antolatzen dituzten ekitaldietako batzuk besterik ez dira honako hauek. Izan ere, urte guztian zehar egiten dituzte hainbat ekitaldi.

↓ Misio Astea

EGITARAUA

- **Martxoak 16, gaur.** 20:00etan, Ibarratik Misio Taldearen proiektuen aurkezpena egingo dute.
- **Martxoak 18, etzi.** 20:00etan, afari solidarioa egingo dute, parrokiako lokaletan.
- **Martxoak 20, igandea.** 10:30ean, misio giroko eukaristia izango da San Bartolome elizan.

● Hilberria

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



JOXIN UNANUE ALDALUR jauna



Sekula ez haserre beti alai hengoan baina negar egingo diagu gaurkoan. Lagun bikaina hintzen ta etorkizunean guk izango haugu hi betiko gogoan

Ikasberri, Azpeitiko Ikastola

Azpeitia, 2011ko martxoaren 16a

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galdu duzuna.
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Inauterietako Argazki Lehiaketa



**ZONBIAK
ETA
ARTISTAK**

Bi egun besterik ez dira falta Inauterietako Argazki Lehiaketan parte hartzeko. Orain arte, pailazozen, mojen eta indiarren mozorroak ikusteko parada eskaini du lehiaketak, baina ez zonbiak, eskerrak Leire Usandizagak bere seme-alaba «zonbien», Eñaut eta Larraitz Mendiluzen, argazkia bidali duela. Beste tolosar batek, bere aldetik, musikari gazte honen irudia bidali du. Bob Marleyren alaba ote? Sagu txiki bat ere iritsi zaigu, Idoia Ibargurenek bidalia. Gogoratu datorren asteartean, hilak 22, argitaratuko dugula Argazki Lehiaketako irabazlearen izena.

Agurrak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● **agurrak**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Hirukide eskolak jakinarazi duenez, ES299 Kristau Eskola zentroak ireki du Cambridge unibertsitatearen ekaineko azterketen deialdirako matrikula epea. Hirukiden apirilaren 6a arte egin daitezke matrikula.
■ **Tolosa.** OHoko lehenengo promozioiko 8. maila Jesusen Alaben ikastetxean egin zutenek (1974-1975) maiatzaren 14an ikaskideen bazkaria izango dute. Bazkaria Bide Bide jatetxean izango da eta izena apirilaren 30a baino lehen eman behar da eta 50 euro sartu 2101 0081 19 0012775102 kontuan. Informazio gehiago eskuratzeko eta

izena emateko deitu 649 16 30 53 telefono zenbakira.

■ **Tolosa.** Lehiberrik Hego Ameriketako merkatuek Tolosaldeko enpresa eta pymeei eskaintzen dizkieten aukeren berri emateko jardunaldia egingo du bihar, 10:00etan Azkoitiko Oinartxo Industrialdean. Informazio gehiago eskatzeko edota izena emateko deitu Tolosaldea Garatzeneko Enpresa Sailera, 943 65 45 01, edo idatzi enpresa@tolosaldea.net helbidera.

HITZALDIAK

■ **Tolosa.** Bihar Patxi Izagirre psikologoak *Dolua eta Galerak* gaiaren inguruko hitzaldia eskainiko du Samaniego ikaste-

txeko Haur Hezkuntzako eraikinean. Hitzaldia gazteleraz izango da 17:30etik 19:00etara eta familia, hezitzaile eta irakasleei zuzendutakoa da.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Arribe.** Garmendia A. Kale Nagusia, 112.
■ **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO** hitza info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
www.leitzaaldea.hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behe, atzea - 20400 Tolosa

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____ • NA: _____

• Lanbidea: _____ • Jaioteguna: _____

• Helbidea: _____ • Herria: _____

• P.K.: _____ • Tel.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: